

{ iritzia } Jon Sarasua Irakasle eta idazlea

Puprilusoko

Ez dut ukatuko gure arteko panorama ideologikoak etsipen puntu bat sortzen didala. Penaz bizi dut dagoen magma ideologikoan interes korporatiboek duten abilezia, gure artean mendebaldeko patroi guztien segidismoa, Hollywoodeko progresismoaren parametroetatik ateratzeko ezintasuna, arlo kulturalen, espiritualean, ekonomikoan eta sozialean pentsamendu propio eta artikulatu xamarraz izateko zailtasuna. Etsipen puntu horrek gutako asko eramaten gaitu ekintzan zentratzera, eta iritzi publikatuaren esparruari gehienetan paso egitera.

Larraitx Ugartek egunkari honetan martxoan idatzitakoek kitzikaturik, eta maiatzaren hasiera baliatuta, ur handitan sartuko naiz, sartu-irten labur bat bada ere. Kapitalismo azeleratuaren logika deseraikitzaileak eta haren elite-indarrek nahi duten lekuan jarri ditugu gure ideiak, aski telegidatuak. Hortxe gaude, ustez apurtzaileak garelakoan, hain zuzen ere apurketa mota horiek bere logikatik sustatzen dituen sistemaren gidoi erraldoian sartuta. Aldiz, inperioari berari ez diogu azkurarik txikiena ere egiten. Eskuina eta ezkerra deitutakoak sistemaren bi beso preziatuak izan dira azken 35 urteotan, ziurrenik azken hamarraldietan “ezkerra” apur bat preziatuagoa elite korporatiboentzat, deseraikuntza sozial-antropologikoan aurreratzea ez-kerrarekin apur bat errazagoa zaielako, baina hortxe, itxurazko alternantzia horretan titularrak eta arreta fokuratuak. Bitartean, gaude geopolitikan oso galduta eta despistatuta, ekonomian alternatibak irudikatzeke ezinduta, gizartearen barruko arazo errealetan interes korporatiboek eta korporatibistek erdi-lotuta. Zerrenda luzea da.

Lan-kontuez hasi garenez, har dezagun ekonomiaren gaia. Aitortuta doa trazu lodian arituko naizela, eztabaidarako material moduan. Gai guztietan bezala, norabidea eta *realpolitik* egin-



«Badakigu, kolapso utopiko-distopiko bat gertatu ezean, kapital-sistema izango dugula, estatua izango dugula (pixka batean ez gurea) eta gizarte antolatuaren eraketak izango ditugula». GETTY IMAGES

garria konbinatu beharko lirateke honetan ere. Baina norabiderik ez bada, pragmatismorik egokiena ere ez da ezer askotarako. Badakigu, kolapso utopiko-distopiko bat gertatu artean, kapital-sistema izango dugula, estatua izango dugula (pixka batean ez gurea) eta gizarte antolatuaren eraketak izango ditugula. Joko-zelai horretan zein izan litezke burujabetza handiagora hurbildu eta interes orokorra maximizatzen duten norabideak?

Zelai horretan gauden artean ere, eredu bat landu behar genuke, norabide bat, ekonomia publikoa, ekonomia pribatu-lukratiboa eta ekonomia sozial-kooperatiboa konbinatzen asmatuko duena. Interes orokorra maximizatzeke, zer litzateke hiruretako bakoitzak hobeto egin dezakeena? Hiru aukera horien inizialekin egina da artikuluko Puprilusoko izenburua. Ba ote dugu halako norabideren bat, gu-

txienez norabide lausoren bat, duen politikarik? Errealitatean, eskuina (muturra deitzen dutena barne) edota ezkerra (besteek muturra deitzen dutena barne) gure inguruko gobernuetan direnean, guztiek politika bertsua egiten dute benetan erdigunekoak diren kontu horietan. Neoliberalismo europarrek markoaren baitako praxi liberal-sozialdemokrata berekoak dira guztiak: kapital ekonomiaren eta haren osagarri den zerbitzu-estatuaren kudeaketa otzana egiten dute, hari edo honi portzentaje txiki batzuk igo edo jaitsez, nahiko marjinalak, azaleko diferentzia ideologikoen izenean. Sistemarentzat eta honen elite europarrentzat antzera da, demagun Espainian, PP-Voxek edo PSOE-Podemosek gobernatu. Azken hamarraldietako egitate hori ulertzea oinarritzkoa da.

Epe ertaineko norabide pragmatiko baterako apunteak zirriborratzen ari

gara. Ekonomia publikoa aipatu dugu? Ekonomia publikoa, bai. Horretan komunismotik gehiago behar dugula uste dut norabide moduan. Denborarekin, bankak publikoa izan behar luke neurri handienez, eta horretarako pausoak ematen hasi beharko genuke oraingo ahalbide mugatuetatik abiatuta.

Industriaren sektore estrategiko batzuek ere publikoak izan behar lukete: energia, telekomunikazioak eta beste hainbat. Hau esanda iduri du zoratu egin naizela, mendebaldean azken 35 urteotan inon gobernatu duen ezkerrik ezkerrenak ere ez baitu inoiz norabide horretan zirkinik egin. Hori posible da egungo mundu kapitalistan? Hara ba, norabide horretan ari dira Txina eta Errusia. Utz dezagun orain alde batera bi herrialde horiei buruzko iritzien gaia. Zentzu handia du, egungo mundu kapitalistan egonik ere, banka eta industria estrategiko batzuk publikoak izateak.


Beste angelu batetik, ideologia-irakuntza handiko ekonomista librepen-tsalari zendu batek aspaldi argudiatzen zidan Hego Euskal Herrian sortu genuen zerbitzu-funtzionario multzoa ikaragarria dela, hiru miloi eskas biztanleri legokiekeena baino askoz handiagoa, biztanleko dugun uniforme-kolore guztietako polizietatik hasi eta udaletako mota eta gai guztietako teknikarietaraino. Horrek, batetik, gure gizartea makaltzen duela aspektu batzuetan, baina bestetik Damoklesen ezpata dela, epe luzera ez garela gai izango horri eusteko. Eutsi badiogu izan dela mendebalde pribilegiatuaren parametro abantailatsuetan egon gare-lako, eta industria sendoa izan dugula-ko, baina zantzuen arabera abantaila geopolitiko eta gainerakoak ez direla ziurrenik luzerako izango. Haren ustez, gure klase politikoak ez du gaitasunik geruza handi horrek zenbatekoa izan behar duen eztabaidatzeko, jadanik ondo finkatu diren sektore-interes korporatibisten mekanismoen aurrean. Eta ematen du arazo horrekiko kon-

traesanean dagoela orain nik egin du-dana: banka eta industria estrategi-koen publikotasuna jartzea norabide. Baina biak egin behar direla esango nuke: banka eta industria strategi-koak ekonomia publikoan sartzen ha-si, eta bestetik, zerbitzu-funtzionario multzoa gure gizartearen tamainari le-gokiokoen neurrira ekarri. Neurria zein den esateko jakintzarik ez daukat, eta baliteke oker egotea, baina zenba-kiei begiratu behar genieke patxadaz.

Planteatu dugunak, edozein kasutan, denborarekin sektore ekonomiko pu-bliko aipagarri bat izatea ekarriko luke. Horrek hitzarmen bat eskatuko luke gizartean: ekonomia publiko bat ere izango dugu, baina langile publikoek ez dute pribilegio konparatiborik izan-go gainerako langileekin. Haien solda-tak langileen batezbestekoen arabera kalkulatu dira, dagozkien sektore eta mailen barruan. Haien lan-baldin-tza eta oporrak langileen batezbeste-koen arabera kalkulatu dira. Sektore artean ere, oporrak berdinak izatera jo-ko dute, hezkuntza sektorekoak barne. Enpresa publikoen efizientzia-parametroak eta kudeaketa-tresnak, gainerako enpresen efizientzia-parametroen an-tzerakoak izango dira. Nolako parametroak liratekeen egokienak, hori beste kontu bat da. Printzipio bati forma ematen hastea esan nahiko luke ho-rrek: ekiparazioa, erdira begirako eki-parazioa.

Horren antipodetan gaudela esan beharrik ez dago. Banka ez da publikoa, industria estrategikoak ez dira publi-koak. Zerbitzu-geruza lodi bat soilik da publikoa. Lanpostu publikoetan sartze-ko ilarak eta azterketa-pabiloi erral-doiak gure gizartearen argazki esangu-ratsuak dira. Herritarrek mauka bezala ikusten dute lanpostu publikoa, egita-tezko klasismo berri bat sortzen du langileen artean, baldintza abantaila-tsu konparatiboak ditu parametro as-kotan. Horren gailurretako bat da He-go Euskal Herrian irakasle publikoena, balio postmaterialisten garairako lan-postu desiratuetakoa bat bihurturik,


«Lanpostu publikoetan sartzeko ilarak eta azterketa-pabiloi erraldoiak gure gizartearen argazki esanguratsuak dira».
Luis JAUREGIALTZO | FOKU



beste sektoreetatik (herrigintzako antolakuntzetatik adibidez) jendea ateratzen ari dena, irakasle-bokazioa sarriegitan bigarren mailan uzten duena, irakasleen interesen izenean haurren eskola-orduak ere moldatzeko joera duena, lekualdaketa etengabeengatik eskola publikoetako ekipoen egonkor-tasuna zailtzen duena, eta abar. Gizarte honek konpondu beharreko arazo es-trukturaletako bat da.

Interes orokorraren eta presio korporatibisten jokoan, lehenbizikoari eusten jakitea da agintari baten zeregi-na, alderdi baten betebeharra, gober-nutik nahiz oposiziotik. Publikoki esan behar genuke hori, lasaitasunez. Badakigu nola jokatzeko duten indar korporatibisten presioek (poliziar-ek, irakasle publikoenak... aire kontrolatzaileetaraino), alderdi eta gober-nuen beldur eta kalkulu politikoekin. Ia beti, irabazteko. Hezkuntzaren ka-

suan, hamarkadetan sortu den kultura hipersindikalizatua kaltegarria da be-reziki hezkuntzarentzat, pentsamol-dearentzat, bai eta baldintza abantailatsuen bila hezkuntza publikora joanda langileak galtzen ari diren he-rrigintzako erakundeentzat, sistema kulturalarentzat, eta, oro har, herri-sistema osoarentzat ere. Besteak bes-te, oporrak eta lanorduak langileon ar-tean ekiparatzeko norabideari ekin behar genioke, hemen eta orain. Hez-kuntza funtsezkoa bezain konplexua da, asko dago hobetzeko, eta horrek la-norduak eskatzen ditu, ez-lektiboak ziurrenik, gainerako lanbideek dituz-ten lanorduen batezbestekoa. Eta he-rritarrei, oro har, zera eska dakieke au-zi honetan: erretorika publikozale eta abarren zelofanaren barruan datozen interes korporatibistei adi egon, eza-gutu ondo irakasle publikoen lan-bal-dintzak zein diren. Informatu Ertzain-



tzaren sindikatu-presioarekin gertatu denari buruz, jakin zenbat igo den er-tzainen soldata, oso adierazgarria da. Ikusi, aztertu eta osatu iritzi bat.

Gauza batzuetan komunismo erreal gehiago eta korporatibismo sindikal bentajista gutxiago beharko genuke. Badakigu hori sindikatuen sekzio batzuen flotazio-marran jotzea dela. Zinez uste dut sindikatuek badutela funtzio garrantzizko bat, sortu zireneko funtzioa: kapital enpresetan kontrapisu sendo izan behar dutela, lan-kostuak murrizteko kapitalak duen joera atergabearen aurka lehiatu behar dutela, zorrotz eta ikuspegi globalez. Eta, aldiz, prozesu edukatibo eta publikoak saskonki des-sindikalizatu behar direla, gizartearen lortzen denaren batezbestekoe-kin kalkulu teknikoak eginez, indarrak kapitalarekiko lehia horretan jarritz. Ezaguna da interes korporatibistek erabiltzen duten koartada baldintza kon-

paratibo pribilegiatuetan daudenen abantailak are handiagoak bihurtzeko: baldintza txarragoetan daudenei gorago begiratzeko erreferentzia sortzen dietela. Gustura jakingo nuke koartada horrek zenbat duen interesatuek haien buruari benetan sinetsarazitako estakuritik eta zenbat, altura hauetan, zinismotik. Uste dut lehenengotik gehiagoko duela, zinismoraino iritsi gabe. Gaitasun handia dugu edozein gaitan gure desabantaila posibleak magnifikatzeko eta gure baldintza abantailatsu errealak lau ideia ideologiko sinpleren bidez indartzeko, justifikatzeko edo apaintzeko. Interes korporatibistak maximizatzeko “publikotasuna” defendatzearen kontsignaren kasua libururako modukoa da.

Jendeak badu gogo minimorik apur bat sakontzeko hezkuntzan benetan gertatzen ari denaz? Zerbait aipatzeagatik, haur baten urteko eskolatzea sa-

re publikoan gobernuari zenbat kostatzen zaion badakigu? Eta zerbitzu publiko bera eskola kooperatibo kontzertatua ematea zenbat kostatzen zaion haur bakoitzeko? Kostu diferentzia harri garri horren mamian arakatu nahi dugu? Eta eskola publikoan ekipoak egonkortzea zergatik zailtzen den? Eta ordutegiez? Eta irakasle lanbiderako sarbideaz? Eta ikastetxeko hezkuntza-proiektu baterako ekipoen garrantziaz? Eta antolakuntza mota bakoitzaren epe luzeko “konpromiso-elikatze diferentzialaz”? Eta gure hezkuntzaren emaitzen bilakaeraz estatuko hezkuntzarekiko? Artikulu oso bat bete liteke

hartu behar ditugula, sozialismo-komunismotik, liberalismotik, anarkismotik, kontserbadurismo ingelesetik. Zati batzuk handiagoak, baina edozein kasutan erlatiboak, ideologia horiek oso mugatuak izan direlako gizakia ulertzeko, eta bestetik, egungo galdera berri askotarako material ideologikorik ez dutelako.

Gure ezaugarriak garatu dituen herri batean, eskueran dugu ekonomia sozial-kooperatiboko formula anitzekin antolatu litekeen esparrua zaintzea ere, handitzea eta eremu askotan norabide moduan jartzea. Ekonomia sozial-kooperatiboak eskaintzen di-

«Eratze, eraketa eta erakundetze aldetik praktikan izaera aberatsa duen herrian, iritzi publikatu gehiena publiko/pribatu binomio sistemiko ezin antzuagoa errepikatzetik ez da pasatzen»

galderaz. Antolatzeko moduei dago-kienez ere, iritzi publikatuan dabilen erakundetze-pentsamendua ezinago motza da, erakundetze moten indargune eta arriskuen, ko-gestio formulen, botere-iturrien, hibridazioen eta abarren inguruan formazio gabezia itzela erakusten du. Paradoxikoa da: hain zuzen ere, eratze, eraketa eta erakundetze aldetik praktikan izaera aberatsa duen herrian, iritzi publikatu gehiena publiko/pribatu binomio sistemiko ezin antzuagoa errepikatzetik ez da pasatzen, gartzetxe bat eta Iberdrola kategoria berean sartuz, adibidez. Janzte minimo baten falta haserretzekoa da.

Komunismoa bi aldiz aipatu dut, baina doktrina marxista batzuek osagai kimeriko handia eta itxitasun kezagarria erakusten dutela uste dut. Pentsatzen dut joan den mendean lehiatu diren ideologietatik puskak

tuen aspektu mesedegarriak asko dira. Zailtasun bereziak ere baditu. Gure politika sozioekonomikoaren ardatzetako bat izan liteke hori. Hiru ardatzetan, a) ekonomia sozial-kooperatiboaren aldeko apustu artikulatu batek, b) ekonomia publikoko esparrua sortzeko prozesu batek, eta c) kapital lukratibozko ekonomian bertako kontrola maximizatzeko estrategia luze batek osatu dezakete norabidea gure ekonomian.

Gai lodiak dira, ados, eta gutxi daki-gu bakoitzak gure aldetik. Eztabaida faltak atsekabetzen nau. Gure gizarte hain progresistako eragile gehienek nahiago dute mendebaldeko agenda ideologikoaren gaietan eta haren gidoian jarraitzea. Praktikan neoliberalismoaren festan segi, proklama ideologikoetan laketu, eta interes korporatibistak zaindu. Etorriko zaie kolpea, atzetik datozenei.